


# MAÑU auzoa



## Mañu (auzoa)

Kokapena: Mañu; VII. mapa (C-1)

**Ohar ling.:** 1093ko Donemiliagako agirian irakurketa desberdinak eginik (Serrano eta Llorenteren transkripzioen arabera), *Manguar*, *Manguiar* edo *Mangivar* bezala ulertu izan den toponimoa, zenbaitzuk leku-izen honekin lotu izan dute.

J. Caro Barojak dioenez:

«*Manguar*, creo que corresponde a Mañua. La forma *Abendangu* da *Abendaño* etc. Pero la desinencia ‘-ar’ haría pensar en *Mañuar*» (Caro Baroja, “Las escrituras referentes a Vizcaya y el Duranguesado del s. XI: su contenido social y económico”. *Hª Gral. del País Vasco vol. 5.* 1981, 292)

Irigoienek, Llorente jarraituta:

«*Mangibar*, cuya terminación **-ibar** es más verosímil, acaso escrito en el gótico como *Mangivar*. (...) se tratará de Mañu-ibar» (Irigoienek, *Las lenguas de los vizcainos. Antroponimia y toponimia medievales*, 1985, 91)

Irakurketa hauetatik ematen du *ibar* dela toponimo horren bigarren osagaia. Lehena, berriz, hurrengo datuek erakusten dutenez, *Mañu* edo *Maño* izango da.

XVIII. mendearen azkenerantz eta XIX.aren hasierara arte, toponimoak, hitz hasieran surdurkaria ez ezik herskaria ere erakusten du (*m-* / *b-*), baita *-u-* bokalaren osteko epentesia ere.<sup>1246</sup> Epentesirako joera zegoela ematen du, nahiz eta horren erakusgarri gutxi izan agiri-tako toponimoen artean. Hauxe da horietako bat:

*Mañua > Mañuba / Bañuba*

**Oharra:** *Mañu* auzoa, gaur egun, **Infernuerrekaren** iparraldeko eta ekialdeko arroek eratzen dute; bere mugak hauexek dira: iparraldetik **Burdinkurtzeagatik Mañuko landara** doan bizkarra; ekialdetik, *Mañuko landatik Trubitagana*, **Laubidietara** eta **Sollubeko torrera** luzatzen den bizkarra; hegotik eta mendebaldetik, azkenik, **Infernuerreka**.

Hiru azpi-auzo bereiz daitezke *Mañun*: **Mañualde** (**Mañugoiko**, **Andiriminieta** eta **Gortaeerre** inguruak), **Elizalde** (**Karmengo eliza** eta **Laubidietara** ingurua) eta **Oiangortalde** (**Arri-zurieta** eta **Landa** baserrien ingurua).

**Mañualdeko** parajeen artean, ondokoak nabari daitezke: **Mañuko**, **Arantzadiko** eta **Burdinkurtzeagako landak**, goialdean, iparraldeko bizkarrean; **Mintegi**, **Andiriminieta**, **Biorgorta**, **Arbitxu**, **Gortaeerre** eta **Zabalene**, erdiko mailan; eta **Olazarreta**, behe aldean, erreka ondoan.

**Elizaldeko** parajeak hauek dira: **Ganeko landa**, **Trubitagana** eta **Laubidietara**, goialdean; eta **Mungiarrene**, **Karmene** eta **Kateazarre**, haien azpian.

**Oiangortaldeko** parajeak: **Eskobadi** eta **Jentillatxeta** goialdean; **Oiangorta**, **Arri-zurieta** eta **Landa** erdiko mailan; eta **Zezenkorta** eta **Oiangortako errota**, behealdean.

**Mañuko** hidrografia, **Infernuerrekak** eta bertara jotzen duten iturriek eratzen dute. Erreka honek **Eskobadin** du bere sorburua; hemen **Jentillatxetako erreka** esaten zaio. Beherago, **Bilborako** errepidearen azpitik pasatzean eta handik behera, **Infernuerreka** izena hartzen du. **Landa** baserrien behealdean, **Irureta** izeneko parajeen, **Eskobadiko erreka** eta **Oiñolako erreka** elkartzen zaizkio. Hemendik beheranzko bidean, **Oiangortako errota** pareraino, **Infernuerrekaz gain**, **Sangresillako erreka** ere esaten zaio. **Oiangortako errota** heldu baino lehen, ekialdetik, **Landaneko erreka** izeneko hartzen du eta **Olazarreta** baino lehe-

<sup>1246</sup> Kontuan izanik, “De la Quadra Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak I eta II” (Gidor Bilbao (98) *ASJU XXXI*) eta “Un texto de 1846 en euskera de Bermeo: la fundación de la cofradía de las Benditas Ánimas del Purgatorio” (Josu Gómez eta Asier Romero (02) *FLV 90*), pentsatu behar da, *-u-* bokalaren osteko epentesia bizirik zegoela garai hartan, nahiz eta, esan bezala, idatzizko erreferentzia gutxi aurkitu horren erakusgarri.



Mañuko Elizalde, 1957.  
Gipuzkoako Artxibo Orokorra. AGG-GAO / OA 1256.

nago, *Laubidietatik* (**Zezenkorta** erreka) eta **Errekalabanetik** behera jaisten diren urak elkartzen zaizkio. *Olazarretatik* beherantz, **Zarragako erreka** izena hartzen du, *Goikolea* eta *Bakioko* erreka nagusiraino.

XI. mendeko agiri batean agertzen da *Mañu* leku-izenaren lehen aipamen idatzia izan daitekeena (Ik. Ohar ling.). 1093an, Lope kondearen emazteak, Tekla andereak, Donemiliagako monasterioari Almikako elizaren dohaintza egitean, Almikako elizatea izan zitekeenaren deskribapen antzekoa egiten da:

*“unum monasterium nomine Albonica (...) circa ora maris (...) cum terris, ortis et pomiferis arboribus, montibus et pascuis omnibus antiquo usu determinatis, id est, Urho, Chennaga sursum, Manguiar [edo Llorenteren arabera, Mangibar] et Bolinua erreca sursum, Bagalgo, erreka apud Albonica, Dorrondua iuso, Narniz, erreka sursum, Barrungia intus, molendinis cum aquarum productilibus patefactis, sautis cum glandiferis arbustis et amenis pratis (...). Et decanias sunt: Uheleku, Munnituz, Bachio et Urdoniz et Bertandona (...)”*<sup>1247</sup>

1366an hartu zuen Bermeok *Mañu* bere eskumenean, don Tellok, hiriaren jurisdikzioaren zabalkuntza egin zuenean:

*“De encima de la Sierra que llaman de Solue do esta amojonado, é dende fasta Iturrieta como ba el arroyo de parte de Hemerando fasta la puente de Gabancho como ba el rio por la Rueda Vieja, é dende como ba é taja el rio fasta la mar, et de como ba a la mar de la entrada de dicho rio de Bakio fasta en Bermejo; é del dicho Lugar de Solue de la otra parte fasta en Esquiaga por do parte el termino de Mundaca fasta la mar”*<sup>1248</sup>

1247 Irigoyen, Alfonso (1985); 18-19.

1248 Iturriza Zabala, Juan Ramon (1793), II; 209.

Agiriak adierazten duenez, **Iturrietatik** behera egiten du muga berriak, *Emerandoko Iruretaraino* eta hemendik, **Infernuerreka** jarraituz, *Zubiaur* auzoko *Gabantxo* baserrien inguruan izan zen zubiraino. *Mañu*, hortaz, Bermeo barruan geratu zen.

Hala ere, XVI. mendean, eztabaidak sortu ziren hiribilduaren eta inguruko elizateen artean. 1574an mugarriketa egitea agindu zen<sup>1249</sup>:

*“ (...) declaro ser termino y jurisdiccion de la dha villa de Bermeo todo lo que se incluye desde Yturrietagana asta llegar a los Tres Arroyos de Emerando y desde alli a la puente de Oxaurta y desde alli a la puente de Gavancho y desde alli asta Baquio por donde corta el arroyo que va de Yturrieta asta la mar ”*

1575ean, elizateek, protestatu eta beraien mugarriketa proposatu zuten:

Meñakak eta Mesterikak:

*“notorio exceso en la moxonera que avia echo porque avia puesto muy mas dentro de los terminos propios de sus partes y en su jurisdiccion porque deviendo de poner los primeros moxones en Iturrietagana y desde alli a los Tres Arroyos que ban a Jaurta puso los dhos moxones en Iturrietagana y en otras partes en que avia tomado y ocupado de los terminos montes y jurisdiccion de los dhos sus partes mas de una legua ”*

Bakiok:

*“Y ansimismo en nombre de la dha anteiglesia de Basigo presento otro scripto en que entre otras cosas dixo que el dho juez juez mayor allaria que la moxonera antigua que siempre avia avido y devidido y devidia los dhos terminos y jurisdiccion de la dha anteiglesia con la villa de Bermeo (...) desde el moxon de piedra questava en Groso y desde alli asta el moxon de Xareacondo (...) y de alli al moxon de Andrinieta y desde alli al moxon de junto a Munguiagorta y desde alli al moxon de Uzalarreta donde se acava la dha moxonera hacia la de la dha anteiglesia ”*

1628ko auzian berririo itzultzen zaizkio hiriari 1366ko zabalkuntzan emandako eremuak. Hona hemen, Diego Rodriguez Baltodano exekutoreak 1629an burututako mugarriketa. Testuan ageri denez, argitasun gehiago emateko, azaldutako lekuak adierazten zituen mapa bat ere egin zen:

*“Primeramente mando que se ponga el primer mojon en la sierra de Solube en lo mas alto y superior de ella que haze vertientes de la una parte Arrieta Murubeta y Axpe de Busturia y de la otra a la dha villa de Bermeo y sus (...) declarando ser verdadero Solube las tres cumbres mas altas que estan en la dha sierra y en la que esta en medio enzima de la puente de Yturrieta se a de poner el dho primer mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra alphabetica =A= del cual mojon primero se baja bajando asta la puente que las dhas anteiglesias llamanla Yturrieta a cordel derecho donde mando se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra alphabetica =B=; y dende el dho mojon segundo de la puente de Yturrieta y su mojon se baja bajando derechamente por el agua y arroyo abajo que de ella sale asta dar a el rio de Ojagorta en el dho sitio donde se juntan con el otros dos aroyos y alli donde se juntan todos tres se ponga otro mojon que es el que esta en la mapa y pintura señalado con la letra =C= y desde el dho tercer mojon proseguiendo el dho rio de Ojagorta abajo se baja asta la puente que llaman de Ojagorta donde junto a ella mando se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra =D= y desde el dho quarto mojon proseguiendo el dho rio abajo de Ojagorta se baja asta la puente que antiguamente se llamava de Gabancho y agora se llama la puente de Estapona que esta y viene*

*a estar frontero de la casa que llaman de Gabancho y junto de la dha puente y frontero de la dha casa se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra =E= y de dho mojon que es el quinto se baja proseguendo por el dho rio abajo por el corriente de el asta dar en la mar y al fin de dho rio donde entra la mar se ponga otro mojon que es el que esta en la mapa y pintura señalado con la letra =F= (...)*" 1250

Mañu ez ezik, **San Pelaio** eta **Zubiaur** auzoak ere berreskuratu egin zituen Bermeok.

*Mañuko* eremuak, XIX. mendera arte poblamendurik gabekoak izan ziren, herri lurrak erabat. Oihanak eta larreak ziren nagusi bertan. *Laubidietatik Oiangortaldera* egiten zuen Bilborako galtzada zaharra zatekeen tokirik ezagunena hiritarrentzat eta, nolabait, arriskutsua ere izango zen paraje horietatik pasatzea. Inguru haietan burututako lapurreta baten berri ematen du 1813ko agiri batek:

*"(...) dicen les salieron en el parage nombrado Arrisuriaga, más allá del parage llamado los quatro caminos, 3 hombres armados, vestidos de soldados (...) y echa esta operación [lapurreta egin omen zieten] tiraron habajo hacia Oja Gorta (...)*" 1251

Basoaren ustiakuntza izan zen paraje honetako jarduera garrantzitsuena: bestek beste, zura, eraikuntzarako, egurra, burdinoletako ikatza egiteko eta larreak eta baso-azpia, baserritarren aprobetxamendurako. Basoak ahi ez zitezen, udalak, urterro, hirurehun zuhaitz landare berriztatzeko betebeharrak zeukan eta horrela egin zen:

*"Cagigos plantados en los terminos de Mañuas"* 1252

*"(...) en cada un año según tiene obligación la villa de plantar trescientos robles. 330 plantíos en el partido del monte llamado Maynu y 53 plantíos de robles en la Rribera"* 1253

*"Plantacion de quejigos en el parage denominado Mañuba"* 1254

*"Cagigos en el termino de Suloeta, Arronategui y Maño selaieta"* 1255

*"Coste de saca de cagigos del termino de Bañuba, su conducción a Goroso y volverlos a plantar aqui"* 1256

*"Poda de chirpia y caba en el termino de Bañua"* 1257

Udalak bisitaldiak egiten zituen basoen egoera aztertzeko<sup>1258</sup> eta *Mañun*, gainera, zuhaitz landare berriak garatzeko mintegiak zeuden; eurentariko bat, "*vibero de Maynua*" izenekoa, **Mintegi** baserria dagoen inguruan egon zen seguruenik.

*"Trabajos en los viberos de Galdiz, Maynua, Zulueta buru"* 1259

Ikatzaren ustiakuntzaren berri ere ematen dute agiriek, batez ere, *Arrizurieta* eta *Oiangortako* parajeetan:

*"810 cargas de carbon [Arrizurietan]"* 1260

*"Areciar el carvon al monte de Baño"* 1261

1250 BFA. BilUA.SZ. 315/1/5.

1251 BFA. Bust. 567/7; 2b.

1252 1682. BUA. AL. 1680-1710; 35b.

1253 1724. BUA. AL. 1711-1727; 139.

1254 1770. BUA. 968/3. Libr. y recibos; 3.

1255 1773. BUA. 1154/4. Libramientos; 22b.

1256 1778. BUA. 968/2. Libr. y recibos; 18.

1257 1778. BUA. 968/2. Libr. y recibos; 20b-29.

1258 1733-1845. 922. Libro visitas. Arbolado.

1259 1777. BUA. 967/4. Libr. y recibos; 34b.

1260 1731. BFA. K. 3583/1; 56b.

1261 1781. BUA. 842. Libr. y recibos; 7.

*“1845. Vicente de Mirandona, carbonero. Tasacion de leñas de madroño y ramaje de roble”* <sup>1262</sup>

Azkenik, auzoetako baserritarrek herri basoak aprobetxa zitzaketan, batez ere otea biltzeko. Horretarako, auzoei zenbait paraje egokitzen zitzaizkien. 1815ean, **Zubiaur** auzoaren goialdean, *Andiriminietan*, baserri bat eraikitzeko, sail batzuk pribatizatzean, aurkako irizkiak azaldu ziren baserritarren artean:

*“Jose de Abio quiere erigir caseria en el termino de Andramarieta a la cabecera de la casa nombrada Lorra, (...) en tierra rasa argomal. (...) Deberá dejar para los vecinos de San Pelayo y Zubiaur que pasen al termino de dos caminos y desde el para Mañua. (...) alegan ser el unico pasto del barrio, lugar de argoma. (...) [Abiok] alega que los cortes de argoma lo hacen hacia la ferrería de Goico-olea y hacia Goroso y desde este hasta el de Arballo y Hermua.”* <sup>1263</sup>

1779ko abenduaren 24an sutea izan zen *Mañuko* basoetan <sup>1264</sup>.

1818tik aurrera, nekazaritza bultzatzeko asmoz, lursailak saltzen hasi zen udala eta baserri berrien eraikuntzari eman zitzaion hasiera. Lursailen kontzesioak Bermeoko auzo gutietan izan ziren, baina *Mañu* izan zen etxe gehien eraiki zen tokia. Etxeak eraiki zituzten baserriak asko Gipuzkoatik etorriak izan ziren:

*“Por entonces los pastores guipuzcoanos que con sus ovejas lo visitaban por temporadas, tuvieron la humorada de asentarse definitivamente en Mañua y Arronategui, y cata ahí cómo estos dos barrios constituyen población con Sasiaines, Arruebarrenas, Ayestaranes, Arámburus, Maíces, Erauzquines, Garmendias, Larrabásteres, Mendizábales, Irastorzas y Amondaraines, apellidos de paladar guipuzcoano. Y por ser novel todo en esos barrios, vueltos el uno al occidente y el otro al oriente, los robles y la hayas que había en ellos fueron tronchados por el hacha, para ser repuestos hoy con pinos y eucaliptos.”* <sup>1265</sup>

Derioko Bizkaiko Elizaren Artxiboko agiri batean jarrai daiteke urtez urte, 1818tik 1850era, *Mañun* eta **Arranotegin** bata bestearen atzetik eraikitzen joan ziren baserriak <sup>1266</sup>.

1818tik aurrera hasten dira agertzen lehen baserriak. Honela:

1818an, *Casa nueva de Bañua de Josef de Ormaza* [etxe 1]

1819an, *Bañua mayor (Jose de Ormaza)* eta *Bañua menor (Antonio de Ugalde)* [2 etxe]

1820an, *Achurra* gehitzen zaie [3 etxe]

1821ean, *Achurra (Mathias Otamendi); la casa de Josef de Zuzain; la de Josef de Ormaza; la de Antonio de Ugalde; la de Gregorio Tellechea.* [4 etxe].

1824an, *La casa de Josef de Ormaza y Josef de Sazein; la de Antonio de Ugalde; la de Bta. de Ormaza; la del catalan; Achurra (de Juan de Elorriaga y Mateo Otamendi); Laubidieta (Antonio Astorquizaga); la de Cortaederra; molino de Ojangorta; casa de Mateo Otamendi; Urcamendi (de Gregorio Tellechea).* [10 etxe]

1825ean, *la de Juan Antonio Gasmuri* [Minteg] gehitzen zaie [11 etxe]

1829an, *la casa de la Tejería ó última de Landa eta Taberna barri* gehitzen dira [13 etxe]

1262 1845. BUA. 1289/2. Montazgos; 188-188b.

1263 BFA. Bust. 236/9; 3.

1264 BUA. 842. Cuentas; 102.

1265 Zabala, Angel (1928), II; 540.

1266 BEHA. A-78/4-1. Alboniga. 1791-1850. Razón de los frutos de Diezmo, Azada, Nobal y Primicia.

1836an, 29 baserri aipatzen dira: *Bañua mayor* (J. Ormaza, J.J. Sasiain y Otero), *Bañua menor* (A. Ugalde), *casa de J. Bta. Ormaza, casa del catalan* (J. Bta. Gaubeca), *la inmediata a ésta, Corta Ederra* (J. A. Sasiain y otro incl.), *la inmediata, casa de Gasmuri* [Mintegi], *mol. de Ojaorta* (Jose de Abaroa), *casa nueva de J. de Abaroa, casa vieja de Antonio de Arruabarrena* (antes de Ota-mendi), *casa nueva de A. Arruabarrena, la inmediata, de Antonio Mendizabal, la casa de Landa, Achurra, Laubidieta, casa de Jose Ramon Duo* [Erramontxune], *casa del que fue el cadenero, Juan Ysurieta* [Lokedo], *casa de Pepe Rigoiti y V. Muruaga* [Solozabal], *casa de Ramon Menchaca* [Arronategui], *casa de Mata cabras* [Mungiarrenebeko], *la otra de Josefa Hormaeche, la inmediata Orijuena, Estarzacuena* (Domingo Gortazar), *Minteguichu* (Domingo Gabancho), *casa de Gregorio Tellechea* [Munape], *Urcamendi, la Cadena*.

1839an, *la casa de los Esquiaga* [Akulategi], gehitzen zaie eta 1941ean, *Zabalburu* (Jose M<sup>a</sup> Esnaola) [Zumeldi]. [31etxe, beraz].

1845ean, 34 etxe aipatzen dira Mañun, hauexek: *Bañua mayor* (J. Ormaza), *Bañua menor* (A. Ugalde), *Bañua de abajo* (J. Bta. Ormaza), *Catalanena* (Bta. Gaubeca), *Manuchu Ybarra* (Juana Butron), *Pepe Mozo* [Kolisone], *Andramita* (Jose Aranburu), *Cortaederra* (J. Ormaeche, J. Uribarri, J. Recalde), *Cortaederra de abajo* (Miguel Erauzquin), *Milicianuena* (Ignacio Laca) [Kantarape], *Minteguichu* (una viuda), *Orioena, Cristobalchuena* (Crist. Garaizar), *Munguiarrena* (J. A. Sasiain, J. Tellechea), *Munguiarrena de arriba* (Francisco Tellechea), *Mendizabal* (Jose) [Joseandiane], *Cadena* (Tomas Uraga), *Arrizurieta* (Jose Abaroa, Ant. Arruabarrena, Jose M<sup>a</sup> Maiz) [Arrizurieta, Oiangorta eta Erdikoetxe], *Pedro Ygnacio Armendariz* [Ereñotzaga], *Landena* (Jose M<sup>a</sup> Landa, Jose Rodriguez) [goiko eta beko], *Achurra* (J. Bta. Armendariz, Juan Apraiz), *Madariaga* (Dom. Ant. Armendariz, Jose Monasterio), *Arranotegui* (Ramon Menchaca), *Aculutegui* (Antonio Esquiaga), *Zabalburu* (Jose M<sup>a</sup> Esnaola) [Zumeldi], *Busterguina* (Ramon Duo, Jose Ysurieta) [Erramontxune], *Lauvidieta, Estarcilloena* (Domingo Gortazar), *Minteguichu* (Domingo Gabancho), *Urcamendi, Munipe* (Gregorio Tellechea).

Eta, azkenik, 1850ean, 37 etxe: *Bañua maior* (M<sup>a</sup> Antonia Renteria, Domingo Otero, Jose Erauzquin), *Bañua menor* (Francisco Tellechea), *Bañua de abajo* (Bta. Ormaza), *Catalanena* (Bta. Gaubeca), *Manuchuena* (M<sup>a</sup> Josefa Ybarra, Francisco Ormaza), *Andramita* (Jose Aranburu), *Corta ederra* (Jose Ormaeche, Jose Uribarri, J. Antonio Astorquiza), *Corta ederra de abajo* (Miguel Yrauzquin), *Milicianuena* (Ygnacio Laca, Andres Unanue) [Kantarape], *Minteguia, Munguiarrena* (Josefa Ygnacia Jauregui, Juan Tellechea, Francisco Larrinaga) [goiko eta beko], *Orioena, Cristobalchuena* (Cristobal Garaizar), *Laubidieta, Mendizabal* (Jose Mendizabal), *Arrizurietas* (Jose Abaroa y su hijo Juan Antonio, A. Arruab., J. M<sup>a</sup> Maiz) [Oiangorta, Arrizurieta eta Erdikoetxe], *casa de Pedro Zulueta, casa nueva de Pedro Ygnacio Armendariz* [Ereñotzaga], *Olazara, Landena* (Jose Rodriguez, Bta. Batiz) [goiko eta beko], *Achurra* (Bta. Armendariz, J. A. Mendizabal), *Madariaga* (Domingo Armendariz), *Solozabal* (Jose Monasterio), *Arranotegui* (Ramon Menchaca y su yerno Francisco Asteinzaga), *Aqulutegui* (Antonio Esquiaga), *Estarcilloena* (Domingo Gortazar), *Munipe* (Gregorio Tellechea), *Zabalburu* (J. M. Esnaola) [Zumeldi], *Minteguichu* (Domingo Gabancho), *Becochea* (Ramon Duo) [Erramontxune], *Goicochea* (Jose Ysurieta) [Lokedo], *Urcamendi* (Juan Apraiz), *Longuena* (Josefa Antonia Agote y su hierno).

1856an, 39 eraikuntza eta 243 biztanle zeuden Mañu auzoan<sup>1267</sup>.

1860an, Bermeoko baserri auzoen berregituraketa egin zen, bereziki *Mañu* auzoari eragin ziona. Alde batetik, **Errematzane**, **Mundakatxu** eta **Kantarape**, ordura arte *Mañukoak* zirenak, **San Migel** auzora bildu ziren:

*“Sobre barrios rurales: Erramacha, Gurezua y Cantera = se agregan al bº San Miguel (hasta ahora eran bº Mañuas)”* <sup>1268</sup>

Eta bestetik, **Arranotegiko** auzo berria sortu zen ondoko baserriekin: *Mañukoak* ziren, **Lokedo**, **Erramontxune**, **Zumeldi**, **Madariaga**, eta **Altxurraga**; *Almikako Longane*, **Urkamendi**, **Mintegitxu**, **Estratzaillune**, **Munape**, **Txinbelane** eta **Solozabaleta**; eta *Artika* auzokoa zen **Akulategi**. *Almikako* eta *Artikako* baserri hauek, goiko zerrendetan, *Mañu* aldeko baserriat eman dira, lurren liberalizazioak eragindako eraikuntza berrikoak zirelako.

*“Sobre barrios rurales: Longuena, Urcamendi, Minteguichu, Estrasallun, Munape, Arronategui, Pepe-Erregoiti del bº Alboniga; Pepeto, Bustarguillia, Sumeldi, Madariaga y Achurra del bº Mañuas y Aculategui del bº Artigas se separan de dhos barrios y se forma con ellos uno nuevo llamado Arronategui”* <sup>1269</sup>

Gaur, ondoko baserriek osatzen dute *Mañu* auzoa.

*Mañualden*: *Mañugoikoatzeko* (bi etxe), *Mañugoikoaurreko*, *Kasabarrriatzeko*, *Kasabarrriaurreko*, *Bistalegre*, *Mintegi* (jausita), *Mintegipe*, *Olalde*, *Komaistene*, *Hipolitone*, *Katalane*, *Balentiñene*, *Manutxuibarrene*, *Kolisone*, *Etxetxu*, *Andiriminietabeko*, *Etxebarri*, *Gortaederregoiko*, *Gortaederre-erdikoa*, *Gortaederrebeko*, *Bidetxe*, *Bekoetxe*, *Arizititxu*, *Olazarreta*, *Biorgorta* eta *Zabalene*.

*Elizalden*: *Mungiarrenegoiko*, *Mungiarrenebeko*, *Kristobalene*, *Elizondo*, *Bentabarri* eta *Joseandiane*.

*Oiangortalden*: *Oiangorta*, *Arrizurieta*, *Ereñotzaga*, *Bentazarre*, *Erdikoetxe*, *Oiangortako errota*, *Landanegoiko* eta *Landanebeko*.

*Mañu* auzoak bere parrokia propioa, abadetxea eta mende hasieran eraikitako eskola dauka, gaur aterpetxe bihurtua. Guztiak *Laubidieta* izeneko parajea.

Ahozkoa:	<b>“Mañú”</b>	088, 101, 113, 116, 126, 127, 136, 144, 145, 146, 164, 166
	<b>“Mañó”</b>	146
	<b>“Mendizé”</b>	139, 140
	<b>“Mendikúek”</b>	160

#### Idatzizkoa:

1093	<i>Mangibar</i>	BIBL Lbyr-II 98
1093	<i>Manguar</i>	BIBL CBJ.EscrVz 292
1093	<i>Manguiar, Mangibar</i>	BIBL LibA/H-O 356-357
1500	<i>Man,ño, montes de</i>	BFA. K. 2042/7 104b
1500	<i>Man’o, término llamado</i>	BFA. K. 2042/7 107
1500	<i>Manno, montes de</i>	BFA. K. 2042/7 114
1500	<i>Manno, moxon de</i>	BFA. K. 2042/7 107
1500	<i>Mañn’o, Manno, término nombrado</i>	BFA. K. 2042/7 104
1500	<i>Maño, término llamado</i>	BFA. K. 2042/7 131b
1610	<i>Mañuas, montes concejiles llamados</i>	VEKA S.V. L1528/3 3-122b
1628	<i>Mañuas, montes concejiles llamados</i>	VEKA S.V. L1528/3 3-125
1646	<i>Mainuas, montes llamados</i>	VEKA S.V. L1528/3 3-184
1656	<i>Mañuas, montes que llaman de</i>	VEKA S.V. L1528/3 1b-37
1682	<i>Mañuas, los términos de</i>	BUA AL. 1680-1710 35b
1724	<i>Maynu, monte</i>	BUA AL. 1711-1727 139
1733-1845	<i>Mainos, montes llamados</i>	BUA 922. Libro visitas. Arbol. 37b

1268 BUA. 5. Rotul. de calles. 1860.

1269 BUA. 5. Rotul. de calles. 1860.



1733-1845	<i>Mainua, término de</i>	BUA 922. Libro visitas. Arbol.	60
1733-1845	<i>Manua, montes llamados</i>	BUA 922. Libro visitas. Arbol.	40b
1733-1845	<i>Maños, términos de</i>	BUA 922. Libro visitas. Arbol.	66
1733-1845	<i>Mañua, monte que llaman</i>	BUA 922. Libro visitas. Arbol.	32b
1770	<i>Mañuba, parage denominado</i>	BUA 968/3. Libr. y recibos	3
1773	<i>Maño selaieta, término de</i>	BUA 1154/4. Libramientos	22b
1774	<i>Bañuba</i>	BUA 250/13. Cargos y datas	26
1778	<i>Bañua, término de</i>	BUA 968/2. Libr. y rec.	20b,-26b
1778	<i>Bañuba, término de</i>	BUA 968/2. Libr. y recibos	18
1779	<i>Mañua, monte llamado</i>	BUA 842. Cuentas	102
1781	<i>Baño, monte de</i>	BUA 842. Libr. y recibos	7
1787	<i>Mañua, vallados de</i>	BUA 990/1. Recibos	21
1794	<i>Maiños, montes comunales</i>	BFA. Bust 399/028	1
1795	<i>Mañua Celayeta, término de</i>	BUA 991/4. Recibos.	16b
1796	<i>Mañua, trabajos en</i>	BUA 1136. Libr. y recibos	36c
1804	<i>Mañua, término de</i>	BUA 1625. Conc. de terrenos	
1815	<i>Mañua</i>	BFA. Bust 236/9	3
1816	<i>Bañua, barrio</i>	BEHA A-78/4-1	58b
1816	<i>Mañua</i>	BUA 1325/1. Casas extramuros	
1818-1850	<i>Mañuas, barrio de</i>	BUA 37/6. Ganaderia	7b
1819	<i>Mañua, monte de</i>	BFA. Bust 554/5	3b
1821	<i>Mañua, paraje titulado</i>	BUA 912/3. Actas de concil.	40b
1827	<i>Bañuas, barrio de</i>	BEHA A-79/10	3
1828	<i>Bañuas, moradores de</i>	BEHA A-64/12-6	38b
1828	<i>Maññas, término de</i>	BEHA A-64/12-6	46b
1828	<i>Mañuas, puntos de</i>	BEHA A-64/12-6	2
1839	<i>Mañuas, barrio de</i>	BUA 1313/4. Contribución	1
1843	<i>Mañua, término de</i>	BUA 1289/2. Montazgos	126
1844	<i>Mañuas, barrio</i>	BIBL YrJA	52-54
1856	<i>Mañuas, barrio</i>	BUA 37. N° de calles, edif., hab.	
1857	<i>Mañuas</i>	BUA Padron 1851(3)	92
1860	<i>Mañuas, barrio</i>	BUA 5. Rotul. de calles	
1877	<i>Mañuas</i>	BUA 244/10. Argomeros	4b
1893	<i>Mañuas</i>	BUA 984/3. Remate de hierbas	
1895	<i>Mañuas, barrio de</i>	BAHP.N.BL 7550	91
1898	<i>Mañuas, punto llamado</i>	BAHP.N.BL 8195	1380b
1938-40	<i>Mañuas, montes comunales de</i>	BUA 327. Sub. de pastos	
1969	<i>Mañuas, núcleo rural</i>	BUA 1432/54	4
1970	<i>Mañuas, barrio de</i>	BUA Inventario de bienes	3
1972	<i>Mañuas, barrio</i>	BIBL ESEC-GB	14

## Abadebaso

Kokapena: Mañu; VII. mapa (D-1)

**Ohar ling.:** ‘Abade’ + ‘baso’. Izen honek artikulua har dezake bai singularrean eta bai pluralean, ahozkoan jasotako aldaerek erakusten dutenez. Artikulu mugatu singularreko aldaeran erdiko bokal biribila itxi egin da disimilazioz, eta ondoren bokal itxi horrek artikulua ixtea ekarri du:

Abadebaso + -a > Abadebasoa > Abadebasua > *Abadebasue*

**Oharrak:** Kateapen, Kateazarreko erreka mendebaldean.

Ahozkoa:	<b>“Abadebásó”</b>	140
	<b>“Abadebásue”</b>	140
	<b>“Abadebásóak”</b>	135

## Idatzizkoa:

1848	<i>Abadebaso, monte</i>	<i>BUA 1289. Leñas (1848)</i>
1854	<i>Abadevaso, monte</i>	<i>BUA 1289/8. Arboles infruct.</i>
1855	<i>Catiape-Abadebaso</i>	<i>BUA 1289. Leñas (1855)</i>
1861	<i>Abadebaso-barrena, monte</i>	<i>BUA 1289/16. Arboles</i>
1861	<i>Abadebaso-goyena, monte</i>	<i>BUA 1289/16. Arboles</i>
1863	<i>Avadebaso-barrena, monte</i>	<i>BUA 1289/18. Leñas</i>
1863	<i>Avadebaso-goyena, monte</i>	<i>BUA 1289/18. Leñas</i>
1870	<i>Abade-vaso, término</i>	<i>BUA 38. Leña</i>
1871	<i>Abade-vaso, monte</i>	<i>BUA 38. Leña</i>
1879	<i>Abade-baso</i>	<i>BUA 38/1. Leña 3b</i>

**Abadetxea**

Kokapena: Mañu; VII. mapa (D-2)

Ohar ling.: ‘Abade’ + ‘etxe’. Ahoz jasotako aldaerak artikulua erakusten du. Artikulu ondoko bokala, disimilazioz, itxi egin da, eta bokal itxi horrek artikulua eragin du asimilazioz:

Abadetxe + -a > Abadetxea > Abadetxia > *Abadetzie*

Oharrak: **Karmengo elizaren** aurrealdean, errepidearen beste aldean. 1888an eraikitakoa da.

Ahazkoa: **“Abadétzie”** 119, 136, 145

## Idatzizkoa:

1897-98 *Casa cural* *BUA 10. Nomencl.1897-98*

**Aguriaga** (mintegia)

Kokapena: Zehaztu gabe.

Oharrak: Herri-baso legez aipatzen da agirietan.

*“Y se les pregunte sies verdad que los montes de la dha villa que llaman Aguriagas, Mañuas y Escobetas de Arechyminieta y Arrizurriaga estan desde ladha fuente de Arrizurrieta acia la parte de Munguia”* <sup>1270</sup>

*“Remate y condiciones del montazgo de Basayluna y el pedazo que esta en el termino de Aguriaga”* <sup>1271</sup>

*Decretos de la villa sobre montazgos: 1680: Galdiz, Aculategui; 1683: Aguriaga; 1702: Galdiz, Arranotegui, Alchur, Gastañazarra, Arambalz* <sup>1272</sup>

XVIII. mendean, paraje honetan udal-mintegia egon zen (Ik. **Arane** auzoko **Galdizko mintegia**):

*“Importe de chirpia para los viveros de Mañua, Galdiz y Aguriaga”* <sup>1273</sup>

Gaur ez da ezagutzen *Aguriaga* leku-izena eta zaila da non zegoen zehaztea. Hala ere, kontuan izanik, gaur mantentzen diren leku-izen batzuk, XVIII. mendeko mintegien aztarnen lekuko direla, zerbait esan daiteke bere kokapenaz. *Galdizko mintegia* gaurko **Mintegi** izeneko tokian egon zen; **Zuluetaburuko mintegiaren** berri, gaurko **Mintegitxu** baserriaren izenak ematen du; eta **Mañuko mintegia**, seguruenik, Mañuko **Mintegi** baserriaren inguruan zegoen. *Aguriagari* dagokionez, ustez, *Mañu auzoko* mendebaldeko

1270 1656. VEKA. S.V. L1528/3.

1271 1675. BFA.K. 3583/1.

1272 BFA. K. 3583/1.

1273 1779. BUA. 842. Cuentas.

muturrean egon zen, *Zubiaur auzoaren* goialdean, gaurko **Zabalene** baserrian inguruan. Alde batetik, baserri honen izen zaharra *Mintegi Zabala* da, eta bestetik, zenbait herri-sail, ordena geografikoz zerrendatzen diren XVIII. mendeko agiri batean, honela esaten da:

*“Los terminos de per yrauien gogen sauela urquidia arancadia galbalorra agunaga en las carragas ôxaurta saynaga y los de mas montes”* <sup>1274</sup>

**Irabiaga** (*Peryrabien*), **Goientzabale** (*Gogensauela*), **Urkidi** eta **Arantzadi**, **San Pelaio** auzoan daude, mendebaldetik ekialderantz hurrenez hurren; **Garbola** (*Galbalorra*), **San Pelaio** eta **Mañu** artean dagoen tontorra da; ondoren, mendebalderago zegokeen **Aguriaga** (*Agunaga*) aipatzen da, eta honen ostean, bere hegoaldean zegokeen **Zarraga**, **Infernuerre-kako** behealdean, eta azkenik, hegoalderago dagoen **Oiangorta** (*Ôxaurta*) eta **Saynaga**. **Garbola** eta **Zarraga** artean dago gaur **Zabalene** baserria.

### Idatzizkoa:

1645	<i>Aguriaga, término de</i>	VEKA S.V. L1528/3	3-23
1645	<i>Aguriagas, montazg. de las</i>	VEKA S.V. L1528/3	3-11
1645	<i>Aguriagas, monte de las</i>	VEKA S.V. L1528/3	3-12
1645	<i>Aguriegas, monte de las</i>	VEKA S.V. L1528/3	3-2
1656	<i>Agunaga</i>	VEKA R.R. Ejec. L1422/15	1
1656	<i>Agurriagas, montes de</i>	VEKA S.V. L1528/3	1b-37
1675	<i>Aguriaga, monte</i>	BFA. K. 3583/1	194-198
1676	<i>Agunagas</i>	VEKA R.R. Ejec. L1503/15	6b
1683	<i>Aguriaga, monte</i>	BFA. K. 3583/1	70
1683	<i>Aguriagas, término de</i>	BUA AL. 1680-1710	56
1698	<i>Aguriagas</i>	BUA 1560. Libro de cuentas	36
1702	<i>Acuriaga, mte. comunal</i>	BIBL. SFTB	
1730	<i>Agunaga, términos de</i>	BFA. K. 1830/2	21b
1730	<i>Aguriaga, montes de</i>	BFA. K. 1830/2	16b
1733-1845	<i>Acuriaga, términos de</i>	BUA 922. Libro visitas. Arbolado	66
1777	<i>Aguriaga</i>	BUA 967/4. Libr. y recibos	84,85,85
1778	<i>Aguriaga, vivero de</i>	BUA 968/2. Libr. y recibos	21b-31b, 80
1779	<i>Aguriaga, vivero de</i>	BUA 842. Cuentas	23b
1781	<i>Acuriaga</i>	BUA 842. Libr. y recibos	71, 73, 74
1785	<i>Acuriaga</i>	BUA 842. Libr. y recibos	8
1785	<i>Acuriaga, vivero de</i>	BUA AL. 1786-1806	5
1787	<i>Acuriaga, ballados de</i>	BUA 990/1. Recibos	2
1787	<i>Acuryaga, vivero de</i>	BUA 990/1. Recibos	38
1790	<i>Acuriaga, vivero de</i>	BUA 990/4. Recibos	15b
1791	<i>Acuriaga, vivero de</i>	BUA 990/5. Recibos	71b
1791	<i>Aquriaga, vivero de</i>	BUA 990/5. Recibos	70b
1794	<i>Aguriagas, mtes. comunales</i>	BFA. Bust 399/028	1
1796	<i>Acuriaga</i>	BUA 1136. Libr. y recibos	35b
1797	<i>Acuriaga, Aguriaga</i>	BUA 1136. Libr. y recibos	45b, 51
1798	<i>Acuriaga</i>	BUA AL. 1786-1806	109b
1802	<i>Acuriaga</i>	BUA 1136. Libr. y recibos	7

## Amandresolo

Kokapena: Zehaztu gabe.

Ohar ling.: Ik. San Migel eta Demiku auzoko **Amandresolo**.

Oharrak: **Mañugoiko** baserriari lotutako saila.

Ahozkoa: **“Amandresólo”** 127

## Idatzizkoa:

1910	<i>Amandresolo, heredad</i>	<i>BUA 1032. Fincas rústicas 1</i>
1910	<i>Amandre-becosolo, heredad</i>	<i>BUA 1032. Fincas rústicas 1</i>
1944	<i>Amandre-solo, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>
1973	<i>Amadresolo, heredad</i>	<i>GJE fk:7174 L77:209</i>

**Amezti** (basoa)

Kokapena: Mañu; X. mapa (B-1)

Oharrak: **Altxurragako atxaren** behealdean, bere mendebaldetik, Bilborako errepidearen goitik.Ahozkoa: **“Amésti”** 136, 139, 141**Andiriminieta** (baserria)

Kokapena: Mañu; VI. mapa (C-4)

**Ohar ling.:** Izen honek agerian uzten du, garai batean *Zubiaur* auzoan dagoen izen bereko parajearen egindako baserri batekiko lotura (Ik. Bakioko Zubiaur auzoko **Andramarieta** ingurua). ‘Andue’ + ‘imini’ + *-eta*. «Andui, andu, andue: Cepa, parte del tronco de cualquier árbol o planta que esta dentro de la tierra y unida a las raíces. Parece que la forma mejor documentada es ‘andui’, que puede muy bien venir de *andue*»<sup>1275</sup>

Hitz elkartuaren lehenengo osagaia, *andiri* gauzatuta ageri da lehenengo agerraldietatik<sup>1276</sup>. Izan daiteke osagaiaren forma zaharragoa **\*\*andure**<sup>1277</sup> izatea edo osagaiak fone-  
ma antihiatiko bat txertatuta izatea, kasu honetan, dardarkari bakuna. Hitz elkarketan, ondoan dauden bokalak diptongatu egin dira (*-ei-* > *-i-*):

‘andure’ + ‘imini’ + *-eta* > Anduriminieta

Bokal asimilazioz, bokal itxi biak hurbildu egin dira: Anduriminieta > *Andiriminieta*.

Gero, ematen du, bilakaera posible bi izan direla, oinarriko bigarren osagaia kontuan izanik: Batetik, bokal arteko *-n-* sudurkariaren galera (Ik. **Araximinieta Artika** auzoan).

Andiriminieta (Ik. *Andrayminietta*) > Andiriminieta (Ik. *Andramieta*)

Ordurako, idatziz jasotakoek erakusten duten moduan, lehenengo osagaia sinkopatuta dago (anduri > andiri > andri) eta horrek etimologia berria eragin du: *Andramieta*, *Andramarieta*.

Bestetik, gaur egunera heldu dena.

Andiriminieta > Andiriminita > Andriminta > *Andraminta*

Leku-atzizkiko *-e-* bokala galdu egin da: *-eta* > *-ta*. Oinarria osatzen duten osagaiak sinkopatu egin dira: iminita > iminta eta andiri > andri. Ostean, herri etimologiagatik andrabilakatu da.

Gero, oinarriko bokal itxi palatalak leku-atzizkian eragina izan du: herskaria busti du, eta bokal irekia itxi du.

*Andraminta* > Andramintxa > *Andramintxe*

Azkenik, baserri berriei izenetan eta baserrien izen berrietan ageri den bokal paragogikodun genitibo marka erantsita izan dezake.

*Andramintxe* > *Andramintxene* (Ik. *Andraminquene*)

1275 Azkue, R. M<sup>a</sup> de (1969 [fakz. 1906]). Michelena, L. (1987-): *Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia. Bilbao.

1276 Bakioko Zubiaur auzoko parajea: 1577-78, *Andiriminieta*. *BFA*. K. 3174/6; 160-165b

1277 \*\* ikurrarekin, berreraiketa edo idatziz jaso gabea adierazi nahi da.

**Oharrak:** XIX. mendearen lehen zatian eraikia. 1845etik aurrera Aranburu familiako-en jabetzakoa izan da. Ez da nahastu behar baserri hau, *Zubiaur* auzoko beste *Andramarieta* baserriarekin.

Ahozkoa:	“ <i>Ándramintxenè</i> ”	131, 134, 140
	“ <i>Andramíntxene</i> ”	126, 130
	“ <i>Ándramintzenebekò</i> ”	145
	“ <i>Andramintxenè bekoá</i> ”	124, 127
	“ <i>Andramintá</i> ”	127
	“ <i>Andramintxé</i> ”	126

**Idatzizkoa:**

1827	<i>Andra ermita, cas.</i>	BEHA A-64/12-6 77b
1841	<i>Andramarieta, cas.</i>	BFA. Bust 568/14 2b
1845	<i>Andramita, cas.</i>	BEHA A-78/4-1
1850	<i>Andramita, cas.</i>	BEHA A-78/4-1
1857	<i>Becua, cas.</i>	BUA Padron 1851(3) 93b
1869	<i>Jose de Aranvuru</i>	BUA 1289. Red. Canon
1904	<i>Andramarieta, cas.</i>	BAHP.N.BL 8577 2482b
1910	<i>Andramarieta, cas.</i>	BUA 1032. Fincas rústicas
1910-1923	<i>Andramarieta, Mañu-becoa, cas.</i>	BUA 866;1435;404.
1922	<i>Andramarietas o Mañuasbecoa, cas.</i>	BFA. E. KZ. C/2
1934	<i>Mañubecoa, cas.</i>	BFA. E. KZ. C/76
1938	<i>Andraminquene becoa, cas.</i>	BUA 1685. Fich. sanit.
1950	<i>Andramarieta ó Mañabecoa, cas.</i>	GJE fk:2118 L28;95

**Arbitxu** (parajea)

Kokapena: Mañu; VI. mapa (B-4)

**Ohar ling.:** ‘Arbitza’ + ‘gutxi’. XVIII. mendetik XX. mendera arte ez da izen honen agerraldirik jaso. Aldaera zaharrena kontuan izanez gero, *Arbiza* leku-izenaren gainean sorturiko toponimoa da; ‘gutxi(a)’ osagaiaren bitartez *txikia* adierazi nahian. Ahoz eta baita idatziz ere, herri etimologia dela eta, ‘gutxi’ zena ‘goiti’ bilakatu da ahozko erabilerran, soinuen antzekotasunagatik, herskarian bustidura erakutsiz: -t- > -tx- (Ik. **Talagutxi** herrian):

*Arbizagutxi > Arbitxugoitxi*

XX. mende hasieratik ‘gutxi’ osagaiaren ordeztu txikigarria darama, eta -tza atzizkia ere galdu egin du, beharbada, silaben antzekotasunagatik.

**Oharrak:** **Mañuko landaren** mendebaldeko bizkarretik **Kolisone** baserriaren ondoraino jaisten den eremua da. Baserri honen mendebaldean *Arbitxuko iturria* esaten zaiona dago. Toki honetako goialdeari, *Goiko Arbitxu* esaten zaio, eta behealdeari, *Beko Arbitxu*.

XIX. mendearen lurren liberalizazioen garaira arte, herri basoak ziren hauek. Udalak usiatzen zituen basoak ziren eta, noizbehinka, haietako baliabideen balorazioak egiten ziren. Hona hemen XVIII. mendeko agiriak azaltzen duena:

“(…) *consta haver hallado en los rezagos de los montes de Arbizaguchia y del pedazo que estaba bajo del dho monte y de la mojonadura de junto a Olazarra y desde un charco que baja desde los montes de Corta Ederra hasta la despedida de dicho charco y desde allí al redor que estta el mojon declarado havia du-cientas noventa cargas de carbon en montazgo de rama (...)*”<sup>1278</sup>

Ahozkoa:	<b>“Arbítxu”</b>	125, 128, 129, 130, 131, 132, 133, 134, 143, 145
	<b>“Beko arbítxu”</b>	133, 135, 143
	<b>“Goiko arbítxu”</b>	143
	<b>“Arbítxuko itxurrizé”</b>	145

## Idatzizkoa:

1731	<i>Arbizaguchia, montes de</i>	<i>BFA, K. 3583/1 60</i>
1910	<i>Arbichu-goiti, monte calvo</i>	<i>BUA 1032. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Arbiacugoiti, argomal</i>	<i>GJE fk:518 L8;42</i>
1910	<i>Arbichu-goiti, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1923-24	<i>Arbichu-goiti, heredad</i>	<i>BUA 404. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Arbian-goiti, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

**Ariztitxu** (baserria)

Kokapena: Mañu; VI. mapa (C-4)

Ohar ling.: Baserri honen izena *Ariztitxu* bada ere, gaur egun *Etzezarre* izena ezagunagoa da. *Bistalegre* izena ere egokitzen zaio. Idatziz, izen zaharraren aldaera biak ageri dira *Areztitxu* eta *Ariztitxu*. Ahoz, aldaeretatik bigarrena baino ez da aurkitzen, -i- duena: *Aristitxu*.

Oharrak: XIX. mendearen lehen zatian eraikia. XX. mendearen hasieratik aurrera Aiestaran familiakoen jabetzakoa izan da.

Ahozkoa:	<b>“Etzésarrè”</b>	124, 125, 126, 127, 128, 129, 131, 132
	<b>“Etzesarré”</b>	129, 134, 135, 145
	<b>“Aristitxu”</b>	135
	<b>“Bistalégre”</b>	128, 135

## Idatzizkoa:

1827	<i>Santi erradore, cas. de</i>	<i>BEHA A-64/12-6 77b</i>
1847-1874	<i>Arestichu, cas.</i>	<i>BUA 5</i>
1854	<i>Arestitchu, cas.</i>	<i>BUA 946. Ced. vecinales</i>
1857	<i>Arestichu, cas.</i>	<i>BUA Padron 1851(3) 94</i>
1859	<i>Santiago Uriondo Arestichu</i>	<i>BUA 5. Nuevo Nomenclator</i>
1860	<i>Arestichu, cas.</i>	<i>BUA 5. Rotul. de calles</i>
1895	<i>Aristechu, cas.</i>	<i>BUA 929. Argomales</i>
1897-98	<i>Arestichu, cas.</i>	<i>BUA 10. Nomencl. 1897-98</i>
1910-923	<i>Aristichu, cas.</i>	<i>BUA 866;1435;404. Riqu. rus.</i>
1915	<i>Aristichu, cas.</i>	<i>GJE fk:2142 L28;154</i>
1915	<i>Aristichu, cas.</i>	<i>GJE fk:950 L13;113</i>
1938	<i>Vistalegre, cas.</i>	<i>BUA 1685. Fich. sanit.</i>
1938-39	<i>Echesarre, cas.</i>	<i>BUA 1240/9. Lanás 7b</i>
1944	<i>Arestichu, cas.</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

**Arrilabane** (basoa)

Kokapena: Mañu; VII. mapa (C-1)

Ohar ling.: ‘(H)arri’ + ‘laban’. Kontsonantez bukatutako izenekin gertatzen den moduan, -e paragogikoa erakusten du:

Arrilaban &gt; Arrilabane

**Oharrak:** **Mintegi** baserriaren mendebaldean. Bertatik jaisten den errekarari, **Errekalabane** esaten zaio.

Ahozkoa:	<b>“Arrilabanè”</b>	124
	<b>“Arrilabaneko basoá”</b>	135
	<b>“Arrilabane basoá”</b>	135
	<b>“Ursaltoko basoá”</b>	135

**Idatzizkoa:**

1910	<i>Arri-larrane, monte bajo</i>	<i>BUA 1032. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Arri-larrane, heredad</i>	<i>BUA 866. Fincas rústicas</i>
1910	<i>Arrilabana, monte</i>	<i>GJE fk:518 L8:42</i>
1923-24	<i>Arri-larrane, heredad</i>	<i>BUA 404. Fincas rústicas</i>
1944	<i>Arri-labano, heredad</i>	<i>BUA 406/3,4 eta 353/3,4,5</i>

## **Arrizurieta** (baserria)

**Kokapena:** Mañu; IX. mapa (A-4)

**Ohar ling.:** ‘(H)arri’ + ‘zuri’ + -eta. Baserri honek izan dituen izenen artean, jabearen abizenetik datorren *Dondizene* edo ugazabaren izenetik datorkion *Antone* aurkitzen dira (edo *Antune*; disimilazioz, -o- > -u-), baina ezagunena eta aldaerarik gehien izan duena, *Arrizurieta* da.

Bokal itxiaren ostean epentesia txertatu da gehienetan hiatoa apurtzeko, -eta leku-atzikiaren aurretik.

*Arrizurieta* > *Arrizurižeta*

Epentesia txertatuta ez duten aldaeretan, leku-atzizkiko -e- galdu egin da: -eta > -ta.

*Arrizurieta* > Arrizurita

Bokal arteko -r- dardarkari bakuna ere galdu du, eta bere lekuan epentesi antihiatikoa jaso da, hiatoa apurtzeko.



Arrizurieta baserria, 1981.

*Arrizurieta* > *Arrisuieta* (Ik. ahozko *Arrisuijeta*)

*Arrizurieta* > *Arrizubieta*

Dardarkariaren ostean, ondoan gelditu diren bokalak diptongatu daitezke, *Arrosijeta* aldaerak erakusten duenez.

Asimilazio prozesua dela eta, bokal itxia ireki egin da: *-i-* > *-e-* > *-a-*.

*Arrizurieta* > *Arrizurijeta* > *Arrezurijeta* > *Arrazurijeta* > *Arrazuijeta*

edo borobildu egin da

*Arrizurieta* > *Arrizurijeta* > *Arrezurijeta* > *Arrosuijeta* > *Arrosijeta*

*Arrizurieta* > *Arrezurieta* > *Arrosuieta* > *Arrosubieta*

**Oharrak:** XIX. mendearen hasieran Antonio Arruabarrenak eraikia **Arrizurieta** izeneko parajea. Antonio Arruabarrena eta Mateo Otamendi, bere aitaordekoarenak ziren baserri hau eta baita **Altxurraga**, **Sartzailleku** eta *Zubiaur* auzoko *Elorriaga* ere.

Ahozkoa:	<i>“Arrisurijeta”</i>	108
	<i>“Arrixurijeta”</i>	134
	<i>“Arrisuijeta”</i>	131
	<i>“Arresurijeta”</i>	101
	<i>“Arrasurijeta”</i>	144
	<i>“Arrasuijeta”</i>	136, 139, 145
	<i>“Arrosuijeta”</i>	116, 126, 127, 130
	<i>“Arrosijeta”</i>	097, 113, 124, 139
	<i>“Arrosubieta”</i>	136
	<i>“Arrisurieta”</i>	141
	<i>“Arrisubieta”</i>	142
	<i>“Ántone”</i>	141
	<i>“Ántune”</i>	136
	<i>“Dóndisene”</i>	141

**Idatzizkoa:**

1823	<i>Arrizurieta, caseria de</i>	BEHA A-77/3-26-VI
1823	<i>Arrizurieta becuca, caseria de</i>	BEHA A-77/3-26-VI
1824	<i>Mateo Otamendi, la de</i>	BEHA A-78/4-1
1827	<i>Arrizurieta, cas.</i>	BEHA A-64/12-6 77b
1827	<i>Arrizurieta, conc. en</i>	BUA 1625. Conc. de terrenos
1829	<i>Mateo Otamendi, vieja de</i>	BEHA A-78/4-1
1831	<i>Erdicoeche, cas.</i>	BUA 915. Hipotecas. 134
1831	<i>Arrizurieta de arriba, caseria de</i>	BUA 915. Hipotecas. 137b
1833	<i>Arrizurieta, cas.</i>	BFA. Bust 101/12 3, 3b
1836	<i>Antº Arruabarrena, nueva de</i>	BEHA A-78/4-1
1836	<i>Antº Arruabarrena, vieja de</i>	BEHA A-78/4-1
1845	<i>Arrizurieta, cas.</i>	BEHA A-78/4-1
1847-1874	<i>Arrisurieta, cas.</i>	BUA 5
1850	<i>Arrizurietas, cas.</i>	BEHA A-78/4-1
1852	<i>Arrisurieta, cas.</i>	BUA 39/3. Enajen. y conc.
1854	<i>Arrisurieta, cas.</i>	BUA 946. Ced. vec.
1857	<i>Arrisurieta, cas.</i>	BUA Padron 1851(3) 95b
1859	<i>Arrisurieta, cas.</i>	BUA 5. Nuevo Nomenclator
1860	<i>Arrisurieta, cas.</i>	BUA 5. Rotul. de calles
1869	<i>Arrizurieta, cas.</i>	BUA 38/1. Leña 3
1886-1887	<i>Arrizurieta, caseria de</i>	BUA 36/1. Leña 4
1893	<i>Arrizubieta, cas.</i>	BFA. K. 2834/6 989-996



1897-98	<i>Arrizurieta, cas.</i>	<i>BUA 10. Nomencl.1897-98</i>
1910-923	<i>Arrizurieta, cas.</i>	<i>BUA 866;1435;404. Riqu. rus.</i>
1922	<i>Arrizurieta, cas.</i>	<i>BFA. E. KZ. C/2</i>
1925	<i>Arrizurieta, cas.</i>	<i>GJE fk:2417 L31;176</i>
1934	<i>Arrizurieta, cas.</i>	<i>BFA. E. KZ. C/76</i>
1938	<i>Arrasurrieta, cas.</i>	<i>BUA 1685. Fich. sanit.</i>

## Arrizurieta (parajea)

Kokapena: Mañu; IX. mapa (A-4)

Ohar ling.: Ik. Mañu auzoko **Arrizurieta** baserria.

**Oharrak:** **Arrizurieta** baserria dagoen ingurua, **Oiangortan**. Hemendik behera egiten zuen Bilborako antzinako galtzadak, eta sarritan zegoen bera konpondu beharra:

1682an, “*se manda se repare un mal paso que esta en el termino de Arricurietta*” 1279.

1683an, “*reparo del camino real del termino de Ariçuriagas*” 1280.

1698an, **Oiangorta** edo **Arrizurieta**ko zubia zen konpondu beharrekoa, “*componer la puente de Arrizurieta*” 1281.

1743an, berriro aipatzen da galtzadaren konponketa beharra: “*Composicion de los caminos de Arrizurieta y Ojagorta*” 1282.

Eta berriro 1798an, “*Comp. de las calzadas desde el puente de Ojagorta hasta el alto de Arrizurieta*” 1283

XIX. mendera arte, herri-lurrak izan ziren paraje honetakoak eta bertako basoak zura eta iketza ateratzeko erabiltzen ziren:

